



Tratu Onen Aldeko Plataforma "Ikuspegi positiboa ematea dugu helburu"

Tratu Onen Aldeko Plataforma azaroaren 29an aurkeztu zen Emakumearen Topalekuan. Urtebete da talde hau sortu zenetik baina 2006ko martxoan hasi ziren hilero biltzen. Hezkuntza, gizarte, kultura eta sindikatuetaiko talde ezberdinek osatzen dute, tratu txarren inguruan hausnarketa egiteko eta horren aurrean eraginkorra izateko lanean ari den plataforma.



Tratu Onen Aldeko Plataforma osatzen duten kideak, aurkezpen ekitaldia. Argazki: Felix Morquecho.

-Noiz sortu zen plataforma eta zergatik?

2005eko azaroan sortu zen ideia. Ermuko emakume bat, ustez, bere bikotekideak, ermuarra hau ere, emandako jipoiaren ondorioz hil zen eta ekimena hortik abiatu zen. Ondoren, herriko talde eta elkarte guztiei gonbidapena egin zitzaizen 2006ko martxoan antolatu zen bilera irekian parte hartzeko, eta ordutik gaur egun arte hilero-hilero

biltzen gara Emakumearen Topalekuan.

-Zenbat talde eta jende biltzen zarete bertan?

Hasieran 24 taldek egin zuten bat ekimenarekin. Horietatik bost hezkuntza esparrukoak ziren, hamalau gizarte eta kultura alorrekoak eta beste bost berdintasunaren eremukoak. Poliki-poliki jende eta talde gehiago hurbildu dira, sindikatu batzuk tartean, eta gaur egun 29 taldek osatzen dugu plata-

forma. Dena dela, bileretan dozena bat lagun elkartzen gara normalean. Bileran jasotako akta eta hurrengo bilerarako data talde guztiei jakinarazten zaie.

-Zeintzuk dira plataforma honen helburuak?

Batez ere emakumeen aurkako indarkeriaren inguruan hausnarketa egitea eta gaiaren inguruan eraginkorra izatea. Eraginkortasuna diogunean, ahalik eta jende gehiagorengana heltzea esan nahi dugu. Tratu txarrak nondik datozen eta zergatik gertatzen diren salatu nahi dugu, eta nola ez, hauekin bukatu. Emakumeenganako indarkeria, diskriminazioaren eta emakume

eta gizonen arteko desberdintasunaren ondorioz larriena da eta argi daukagu, legeen bitartez soilik ez dela arazoa konponduko, horrez gain jendearen inplikazioa beharrezkoa dela.

-Tratu txarren egoera batetik sortu zen taldea baina taldearen izenak ordea, mezu positiboa dauka, Tratu Onen Aldeko Plataforma baita. Zer dela eta?

Tratu txarrei aurre egiteko, alderdi positiboetan oinarritu nahi dugu, pertsonen arteko tratu onak bultzatuz. Horrek, berdintasunezko jendarte justuagoa eta solidarioagoa sustatzen lagunduko du. Halaber, mezu po-

**“6aur egun 29 taldek
osatzen dugu plataforma”**

ILEAPAINDEGIA
Iraskun
Goienkale, 9 (Plaza San Martin)
48260 Ermua Bizkaia
Tel. 943.17 66 90
ILEAPAINDEGIA

komunitateak
aseguruak
San Pelayo
aholkularitza
fiskal eta juridikoa
Tel./Fax. 943 17 15 65 / 943 17 25 04
San Pelayo 6-A (Eroski gainean) 46 P.K. - Ermua

PUB YOMY
**Zubiaurre
kalearen
bihotzean**



"Elkarte eta talde desberdinengan eragitea dugu helburu"

sitiboarekin eraginkorrak izan gaitezkeela pentsatzen dugu.

-Ermuan jarduteko bereziki sortu da ekimen hau. Nola eragin nahi da talde honen bitartez?

Elkarte eta talde ezberdinengan eragitea oso garrantzitsua da. Finean, talde horietan biltzen den jendearen zuzenean eragiten delako. Beraz, zenbat eta talde gehiago bildu, orduan eta jende gehiagorengana heltzeko aukera dago. Bestalde, kalean ere eragitea bilatzen dugu, enkarteladak edo bestelako ekimenen bidez.

-Zein da taldearen jardura eta funtzioa?

Emakumeenganako genero indarkeria arazo larria dela argi izanik, gure jarduerak honako hau lortu

nahiko luke: lehenengo eta behin, maila pertsonal zein kolektiboan emakumeenganako biolentziarik ez erabiltzeko eta ez onartzeko konpromisoa hartzea. Era berean, gizarte-sentsibilizazioa eta salaketa lana egin nahi dugu. Bestalde, tratatu txarrak jasan dituzten pertsonen elkartasuna adierazi nahi da, horrelako jokaeren gaitzespena etengabe agerian utziz. Azkenik, erakunde eta talde ezberdinekin koordinatuz, lankidetzan aritu nahi dugu eta konpetentzia duten erakundeei erantzukizuna eskatu nahi diegu, benetako berdintasuna suspertzeko.

-Zeintzuk dira esku artean dituzuen ekimen eta egitasmoak?

Momentuz honako hauek adostu ditugu: alde batetik,

emakume bat hiltzen duten bakoitzean herritarren kontzentrazioak deialdia egitea. Bestetik, bi hilean behin, indarkeria matxista orokorrean salatzeko kontzentrazioak egitea. Horrez gain, bertan ari garen pertsonentzako barne formaziorako tailerrak egin ditugu, esaterako plataforma osatzen duten 9 kidek hamar orduko tailer batean hartu dute parte. Era berean, platforman gauden talde zein pertsonen, eremu honetan bakoitzak egiten dituen ekintzak komunean jartzen ditugu gainontzeko taldeekin, ondorioak eta emaitzak batzeko asmoz.

-Urte osoan zehar hilero elkartu zarete. Zer egin edo adostu duzue bilera horietan?

Oraindik hasieran gaudela esan daiteke. Orain arte, taldearen helburuak, aipatu ditugun taldearen funtzioak eta emakumeenganako biolentzia zer den definitzen eman dugu denbora.

-Plataforma honetan edozeinek har dezake parte. Zer egin behar du eta norekin jarri behar da harremanetan?

Behin eta berriz erreplikatu dugu gure asmoa ahalik eta pertsona gehienengana iristea dela, eta ahalik eta jende eta talde gehien inplikatu nahi dugula ekimen honetan. Zabalik dago eta parte hartu nahi duen orok Emakumeen Topalekura hurbiltzea edo bertara deitzea (943 17 10 30) baino ez dauka.

Alazne Aiestaran

PLATAFORMAREN BARNE DAUDEN TALDEAK:

Eskolabarri-Eskolabarriko Guraso Elkarte.

San Pelaio ikastetxea-San Pelaio Guraso Elkarte. Anaitasuna Ikastola.

Ongarai Eskolako Lehen Hezkuntzako Institutua.

Ongarai Bigarren Hezkuntzako Institutua.

Huntzorri.

AECC.

Ayuda en Acción.

Cáritas.

Cruz Roja Eibar-Ermua.

Pasialeku Nagusien-etxea. Nagusilan.

Solidaridad América Latina.

Eskilarapeko Ateneoa.

Arreta Irratia.

Alboka Musika Eskola.

Mugarte.

Ermuko Euskal Pilota Taldea.

Gaztela-Mantxako Kultur Zentroa.

Andaluziako Kultur Zentroa.

San Pelaio Jai Batzordea.

CC.OO.

LAB.

Sustapen Zentroko ikasle ohiak.

Ermuko Emakumeen Asanblada.

Ermuko Alargunen Elkarte.

Emakumearen

Sustapenerako Zentroa.

Izarraitz antzerki-taldea.




Azaroaren 25ean genero indarkeriaren aurka egin zen kontzentrazioa.

Pub SCORPIO



Zubiaurre, 21
ERMUA



PERSIANAS ORBE

- muntaia eta konponketa
- motorizazioa
- pertsiana dekoratiboak
- pertsiana bilgarriak
- segurtasun pertsianak
- moskiterak

Zearreko buelta, 2 • 943 17 66 34 • 630 01 13 41